




**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
**Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentua**  
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

# Gipuzkoako Ibaien Arrain-Ikerketa

Laburpena  
2021 urtea



**AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK .....</b>	<b>5</b>
<b>3. EZAUGARRI KLIMATIKOAK ETA HIDROLOGIKOAK.....</b>	<b>7</b>
<b>4. AMUARRAIN-POPULAZIOAREN EGOERA 2021EAN .....</b>	<b>9</b>
4.1. DENTSITATEA ETA BIOMASA .....	11
4.2. ARRAIN-POPULAZIOEN UGALKETA .....	15
4.3. AMUARRAIN GAZTE ETA HELDUEN DENTSITATEA .....	18
<b>5. AMUARRAIN POPULAZIOEN DENBORA BILAKAERA.....</b>	<b>24</b>
5.1. GIPUZKOAKO ESTAZIO GUZTIEN DENBORA BILAKAERA .....	24
5.2. AMUARRAIN DENTSITATEAREN BILAKAERA ARRO ETA ESTAZIOAREN ARABERA .....	30
5.2.1.1. Oiartzun arroa .....	30
5.2.1.2. Urumea arroa .....	31
5.2.1.3. Oria arroa .....	32
5.2.1.4. Urola arroa .....	33
5.2.1.5. Deba arroa.....	34

## Taulen aurkibidea

1. Taula	Laginketa-estazioen sarea. 2021. urtea .....	5
1. Taula	Amuarrain populazioen ezaugarriak. 2021. urtea .....	7
2. Taula	Arrain-populazioen ezaugarriak. 2021. urtea .....	9
3. Taula	Amuarrain-populazioen dentsitate eta biomasa sailkatzeko tarteak:.....	11
4. Taula	Amuarrain-populazioen dentsitatea eta biomasa. 2021. urtea.....	11
5. Taula	Arrainkumeen erreklutamendu tasaren eta dentsitatearen sailkapen tarteak. ....	15
6. Taula	Amuarrain-populazioaren erreklutamendu tasa. 2021. urtea .....	15
7. Taula	Arrain gazteen sailkapen tarteak, dentsitatearen arabera.....	18
8. Taula	Amuarrain gazteen dentsitatea. 2021. urtea.....	18
9. Taula	Arrain helduen sailkapen tarteak, dentsitatearen arabera. ....	20
10. Taula	Amuarrain helduen dentsitatea. 2021. urtea. ....	20
11. Taula	Amuarrain-populazioen sailkapen-tarteak dentsitatearen arabera.....	24
12. Taula	Amuarrain denbora-bilakaera adinaren arabera.....	27
13. Taula	Amuarrain-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2021) .....	48
14. Taula	Amuarrain-Biomasa denbora-bilakaera (1994 – 2021) .....	49
15. Taula	Arrainkume-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2021). ....	50
16. Taula	Gazte-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2021). ....	51
17. Taula	Heldu-dentsitatearen denbora-bilakaera (1994 – 2021). ....	52

## Irudien aurkibidea

1. Irudia	2021. kanpainako estazioen kokapenak.....	6
2. Irudia	Hileko batez besteko emaria 2020-2021 urte hidrologikorako (urdirik) eta datuen serie historikorako (grisez) gipuzkoako ibaietako erreferentziako 6 estazio hidrometeorologikotan. ....	8
3. Irudia	Amuarrain – populazioen dentsitatea. 2021. Urtea .....	10
4. Irudia	Amuarrain-populazioaren dentsitatea eta (2.000 n/ha) erreferentzia-balioa. 2021. Urtea. ....	13
5. Irudia	Amuarrain-populazioaren biomasa. 2021. urtea.....	13
6. Irudia	Arrainkume-populazioen dentsitatea eta (1.000 kume/ha) erreferentzia-balioa. 2021. urtea. ....	16
7. Irudia	Amuarrain gazte-populazioen dentsitatea eta (600 gazte/ha) erreferentzia-balioa. 2021. urtea. ....	19
8. Irudia	Amuarrain helduen populazio dentsitatea eta (200 heldu/ha) erreferentzia-balioa. 2021. urtea. ....	21
9. Irudia	Amuarrain populazioaren bilakaera, adinaren arabera.....	28
10. Irudia	Segida historikoak gainjarrita amuarrain taldearen dentsitatearen batz-bestekoak. ....	29

## 1. SARRERA

Laburpen-txosten honetan, GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUAK 2021. urtean amuarrainaren populazioen jarraipenari dagozkion emaitzak jasotzen ditu. Espezie hori interes handikoa da kudeaketaren ikuspegitik.

Europako gainerako lekuetan bezala, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ere behera egin du amuarrainen populazioak azken hamarkadetan. Hainbat dira egoera hori eragin duten faktoreak: kutsadura, ibaiko habitataren aldaketa, kirol-arrantzaren presioa... Amuarraina Gipuzkoako arro guztietan topatzen dugu, bai ibaien goi-ibarretan eta bai behealdeko tartetean ere. Hala ere, sarriago ageri da ekialdeko arroetan, habitataren kontserbazio maila hobea dutelako

1997a baino lehenagoko urteetan, hain zuzen ere, data horretan mugatu zen merkataritza-xedez Europa erdialdeko jatorria zuen amuarrainaren birpopulaketak egitea, amuarrain-populazioan hutsuneren bat izan zuten kasuak zuzentzen saiatu ziren, merkataritzarako arrain-hazkuntzatik etorritako arrainen birpopulaketa masiboen bitartez. Lortutako emaitzak ez ziren espero zirenak izan, eta oso biziraupen-tasa txikiak lortu zituzten, populazioen egoera apenas aldatu zutenak. Beste alde batetik, kutsadura genetikoa eragin zuten populazio autoktonoen artean, erabili zituzten arrainak leku arrotzetatik ekarri zituztelako eta patroik genetiko desberdinak zituztelako. Bestalde, hainbat saneamendu-plan eta arazketa-plan abian jartzeak uraren kalitatea hobetu du, eta horri esker, amuarraina ugaritu egin da desagertuta zegoen ibai-tarte batzuetan, batez ere Oriak, Urola eta Deba ibaien ibilgu nagusian eta hauen ibai-adar printzipaletan.

Nolanahi ere, esan beharra dago ibaiko habitata oso garrantzitsua dela espezie hau berreskuratzeko, askotan uraren kalitatea hobetzea ez baita nahikoa izaten arrain-komunitatearen kalitatea hobetzeko. Ildo horretan, azken urteetan, egoera horri erantzuteko eta Gipuzkoa eta Nafarroa artean balio naturalistiko handia duten arroak lehengoratzeko, hala nola Bidasoa, Urumea eta Oriak ibaiak, Leitzaran ibaiari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bi lurraldeetan ibaien kudeaketan erantzukizuna duten hainbat Administrazio Publikok elkarrekin lan egin dute Europako funtsekin batera finantzatutako zenbait lankidetzak-proiekturen bidez, hala nola BIDUR, GURANTRANS edo LIFE IREKIBAI. Proiektu horietan, garrantzi handiko jarduerak egin dira ibai-habitataren iragazkortasuna hobetzeko edo lehengoratzeko.

2016-2020 aldian LIFE IREKIBAIren eremuan egindako azken jarduketek esker, Bidasoa ibaiko eta Leitzaran ibaiko espezie migratzaileentzako habitat irigarria handitzea lortu da. Bertan, Inturiako eta Oiokiko Zhkoaren presa txikien eraispinak nabarmentzen dira, bai eta ibai-habitata hobetzeko jarduketak ere, zuzeko egiturak ibaian sartuz.

Txosten honetan 2021. urteko kanpainan lortutako emaitzak aztertzen dira, 1994. urtean martxan jarri zenetik izan duen bilakaeraren jarraipena ere aztertzen da, honela, espeziearen ustiapen jasangarri bat eta Gipuzkoako ibaietan honen baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen lagunduko du.

## 2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK

2021. urteko laginketa-sareak 24 puntu ditu, arro desberdinetan banatuak. Azterlan hau egiteko erabilitako metodologia Gipuzkoako Ibaien Ikerketaren azken txostenean zehazten da.


1. Taula Laginketa-estazioen sarea. 2021. urtea.

zk.	Estazioa	Kodea	Ibaia	Arroa	Mota	Data
1	Altzibar	OIA08000	Oiartzun	Oiartzun	Finkoa	2021/09/07
2	Penadegi	OIA03500	Oiartzun	Oiartzun	Txandakakoa	2021/09/07
3	Karrika	KAR06818	Karrika	Oiartzun	Espezifikoa	2021/09/23
4	Mendaraz	URU17500	Urumea	Urumea	Finkoa	2021/09/14
5	Pikoaga	URU30000	Urumea	Urumea	Finkoa	2021/09/28
6	Lastaola	URU35400	Urumea	Urumea	Finkoa	2021/09/28
7	Urmenditik Behera	URR06000	Urruzuno	Urumea	Finkoa	2021/09/14
8	Okilegi	ANA03800	Añarbe	Urumea	Espezifikoa	2021/09/30
9	Latxe bokalea	LAT04451	Latxe	Urumea	Espezifikoa	2021/09/23
10	Ataundik Gora	AGA11000	Agauntza	Oria	Finkoa	2021/09/06
11	Lizartzatik Gora	ARA15800	Araxes	Oria	Finkoa	2021/09/13
12	Lizartzatik Behera	ARA20000	Araxes	Oria	Finkoa	2021/09/27
13	Araxes Esperimentala	ARA13750	Araxes	Oria	Araxes Ikerketa	2021/09/13
14	Araxes Kontrola	ARA15150	Araxes	Oria	Araxes Ikerketa	2021/09/27
15	Ameraun	LEI23000	Leitzaran	Oria	Finkoa	2021/09/09
16	Aparrain	LEI24600	Leitzaran	Oria	Leitzaran	2021/09/29
17	Lizarraundi	LEI28100	Leitzaran	Oria	Leitzaran	2021/09/29
18	Ausinegi	LEI30800	Leitzaran	Oria	Leitzaran	2021/09/29
19	Teileriaartetik Gora	URO06000	Urola	Urola	Finkoa	2021/09/22
20	Matxinbenta	IED01800	Ibai-Eder	Urola	Finkoa	2021/09/08
21	Urrestilla	IED07800	Ibai-Eder	Urola	Txandakakoa	2021/09/08
22	Arantzazu Barrutia	ARZ11300	Arantzazu	Deba	Finkoa	2021/09/15
23	Arantzazu Barrutitik Gora	ARZ09700	Arantzazu	Deba	Txandakakoa	2021/09/15
24	Sallobente	SLO02600	Sallobente	Deba	Finkoa	2021/10/01

Laginketa-maiztasunaren eta helburuen arabera, 4 estazio mota daude:

- Finkoak: urteroko laginketa (n=13)
- Leitzaran ibaiaren jarraipena (n=3)
- Araxesen jarraipena (n=2)
- Espezifikoak eta txandakakoak (n=6)

Laginketa horiek 2021eko Iraila eta Urrian gauzatuak izan dira, emari baxuko baldintzetan. Laginketa-puntu bakoitzean, oro har, ibai-sektorearen ezaugarri hidromorfodinamikoak islatuko dituen tarte bat aztertzen da. Irisgarritasun-arazoak direla eta Urola ibaian, Teileriaartetik Gora estazioa, kilometro bat ibaian behera lekualdatzen da. Laginketaren serie historikoari eusteko, kode bera mantenduko da estazio berri honetarako (URO06000).



1. Irudia 2021. Kanpainako estazioen kokapenak.

### 3. EZAUGARRI KLIMATIKOAK ETA HIDROLOGIKOAK

Atal honetan, amuarrainaren ugaltze-garaiko ingurumen baldintzak aztertzen dira, bereziki, errute epeari, inkubazioari eta larrialdiari dagozkionak. Horretarako, alde batetik, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak 2020-2021<sup>1</sup> aldiko udazken, negu eta udaberrian egindako prezipitazio eta temperaturari buruzko txosten meteorologikoak hartzen dira kontutan (1.taula), eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren<sup>2</sup> sare hidrometeorologiakoan bildutako hileko batez besteko emari historikoak eta gaur egungo datuekin Oartzun, Urumea, Leitzarar, Agauntza, Ibaieder eta Oinati ibaietako estazioak hartu dira erreferentzia gisa (2. irudia).

1. Taula Amuarrain populazioen ezaugarriak. 2021. urtea.

Urtea	Hilabetea	Ziklo biologikoa	Izaera termikoa	Prezipitazioa
2020	Urria	Aurre-ugalketa/migrazio	Hotza	Oso hezea
	Azaroa		Oso Epela	Oso lehorra
	Abendua	Ugalketa/inkubazio	Normala	Ikaragarri hezea/Oso hezea
Urtarrila	Hotza		Normala/hezea	
Otsaila	Oso Epela		Lehorra/normala	
2021	Martxoa	Larrialdia	Epela	Oso lehorra
	Apirila		Normala	Oso lehorra
	Maiatza		Hotza	Oso lehorra


Amuarrainen ugaltze aurreko migrazio-aldian, 2020ko udazkeneko hilabeteetan, urria oso hezea eta hotza izan zen, azaroa aldiz, oso lehorra eta epela. Urriko emariak ere historikoak baino handiagoak izan ziren, batez ere ekialdeko ibaietan (Leitzarar, Urumea eta Oartzun), azaroan aldiz baxuagoak izan ziren. Abenduan, ugalketa eta inkubazio aldian, oso heze eta ikaragarri heze artean izan zen, eta normala temperaturari dagokionez, erreferentziako 6 estazioetan erregistratutako emarietan ikus daitekeen bezala, historikoak baino askoz altuagoak, urtarrila aldiz, normala/hezea eta hotza artekoa izan zen. Temperaturari dagokionez, aldi honen azken zatian, lehorra/normala eta oso epela artekoa izan zen otsaila. Arrautzak inkubatu eta eklosioa gertatu ondoren, arrainkumeak udaberrian (martxotik maiatzera) legarretatik azaleratzen dira, larrialdi-aldia da, bizi-zikloaren fase kritikoa. Garai hau oso lehorra izan da 3 hilabeteetan zehar, aldiz, epela martxoan, normala apirilean eta hotza maiatzean. Aldi horretako emariak historikoak baino txikiagoak izan dira estazio guztietan.

<sup>1</sup> <https://www.euskalmet.euskadi.eus/clima/boletines-climatologicos/>

<sup>2</sup> <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/obrahidraulikoak/hidrologia-y-calidad/red-de-estaciones-permanentes>



Beraz, ugaltze-aldian emari eta temperatura baldintzak onak direla dirudien bitartean, larrialdi aldian emariak baxuak dira, eta ez dirudi bizi-zikloaren fase kritiko horri mesede egiten dionik, 2021eko arrainkume edo erreklutamendua neurri batean zehaztuko baititu.




2. Irudia Hileko batez besteko emaria 2020-2021 urte hidrolorako (urdinez) eta datuen serie historikorako (grisez) gipuzkoako ibaietako erreferentziako 6 estazio hidrometeorologikotan.

#### 4. AMUARRAIN-POPULAZIOAREN EGOERA 2021EAN

Hurrengo taula eta irudian, 2021. urteko laginketa puntuetako amuarrain populazioen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira eta jarraian dagoen atalean 24 estazioetan lortutako emaitzak aztertzen dira, populazio osoa eta klase bakoitza edo adin tartea bezala.

2. Taula Arrain-populazioen ezaugarriak. 2021. urtea.

ESTAZIOAK	KODEA	IBAIA	Dentsitatea (N/Ha)	Biomasa (kg/Ha)	Luzera- tartea (mm)		Populazio-egitura					
							Arrainkumeak		Gazteak		Helduak	
							N/Ha	%	N/Ha	%	N/Ha	%
ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	<b>1.914</b>	<b>47</b>	62	294	<b>1.351</b>	71	<b>473</b>	25	<b>90</b>	5
PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	<b>3.260</b>	<b>57</b>	53	258	<b>2.234</b>	69	<b>585</b>	18	<b>442</b>	14
KARRIKA	KAR06818	Karrika	<b>1.357</b>	<b>35</b>	53	228	<b>590</b>	44	<b>472</b>	35	<b>294</b>	22
MENDARAZ	URU17500	Urumea	<b>401</b>	<b>3</b>	65	164	<b>394</b>	98	<b>7</b>	2	<b>0</b>	0
PIKOAGA	URU30000	Urumea	<b>366</b>	<b>11</b>	70	261	<b>309</b>	84	<b>11</b>	3	<b>46</b>	13
LASTAOLA	URU35400	Urumea	<b>65</b>	<b>1</b>	57	158	<b>57</b>	88	<b>8</b>	13	<b>0</b>	0
URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	<b>2.011</b>	<b>34</b>	53	300	<b>1.613</b>	80	<b>228</b>	11	<b>170</b>	8
OKILEGI	ANA03800	Añarbe	<b>1.270</b>	<b>37</b>	65	330	<b>893</b>	70	<b>190</b>	15	<b>188</b>	15
LATXE BOKALEA	LAT04451	Latxe	<b>2.093</b>	<b>78</b>	55	257	<b>868</b>	41	<b>542</b>	26	<b>683</b>	33
ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	<b>2.365</b>	<b>73</b>	67	254	<b>1.591</b>	67	<b>385</b>	16	<b>389</b>	16
LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	<b>1.804</b>	<b>139</b>	70	295	<b>415</b>	23	<b>594</b>	33	<b>794</b>	44
LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	<b>796</b>	<b>116</b>	92	342	<b>105</b>	13	<b>317</b>	40	<b>374</b>	47
ARAXES EXPER.	ARA13750	Araxes	<b>2.034</b>	<b>74</b>	71	293	<b>1.305</b>	64	<b>405</b>	20	<b>324</b>	16
ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	<b>1.484</b>	<b>45</b>	48	267	<b>772</b>	52	<b>530</b>	36	<b>182</b>	12
AMERAUN	LEI23000	Leitzaran	<b>616</b>	<b>47</b>	75	424	<b>285</b>	46	<b>218</b>	35	<b>113</b>	18
APARRAIN	LEI24600	Leitzaran	<b>1.276</b>	<b>37</b>	74	243	<b>886</b>	69	<b>307</b>	24	<b>83</b>	7
LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzaran	<b>629</b>	<b>41</b>	76	266	<b>183</b>	29	<b>289</b>	46	<b>157</b>	25
AUSINEGI	LEI30800	Leitzaran	<b>2.096</b>	<b>32</b>	64	252	<b>1.903</b>	91	<b>167</b>	8	<b>26</b>	1
TEILERIARTETIK GORA	URO06000	Urola	<b>4.879</b>	<b>81</b>	57	250	<b>3.883</b>	80	<b>751</b>	15	<b>245</b>	5
MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	<b>4.527</b>	<b>86</b>	60	270	<b>2.590</b>	57	<b>1.633</b>	36	<b>304</b>	7
URRESTILLA	IED07800	Ibai-Eder	<b>1.788</b>	<b>146</b>	77	304	<b>226</b>	13	<b>1.131</b>	63	<b>430</b>	24
ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	<b>1.707</b>	<b>40</b>	54	313	<b>1.262</b>	74	<b>248</b>	15	<b>198</b>	12
ARANTZAZU BARRUTITIK G.	ARZ09700	Arantzazu	<b>1.805</b>	<b>56</b>	61	276	<b>993</b>	55	<b>558</b>	31	<b>254</b>	14
SALLOBENTE	SLO02600	Sallobente	<b>2.717</b>	<b>57</b>	63	231	<b>2.095</b>	77	<b>402</b>	15	<b>219</b>	8



3. Irudia Amuarrain – populazioen dentsitatea. 2021. Urtea

#### 4.1. DENTSIKATEA ETA BIOMASA

Amuarrain-populazioaren dentsitatea eta biomasa, tarte hauen arabera sailkatzen dira:

3. Taula Amuarrain-populazioen dentsitate eta biomasa sailkatzeko tarteak:

Sailkapena	Dentsitatea (N/Ha)	Biomasa (kg/Ha)
Oso txikia	< 500	≈10
Txikia	500 – 2.000	≈30
Ertaina-Txikia		≈75
Ertaina	2.000 – 4.000	≈100
Ertaina-Handia		≈200
Handia	4.000 – 6.000	≈250
Oso handia	> 6.000	

Orientagarri gisa, hurrengo ataletan sartzen diren emaitza grafikek, amuarrain populazioaren frakzio bakoitzerako balio ertain edo normaltzat jotzen den dentsitatearen beheko muga jasotzen dute, hau da, hektareako 2.000 amuarrain, 1.000 arrainkume, 600 gazte eta 200 heldu (3, 5, 7, 9 eta 11 taulak).

4. Taula Amuarrain-populazioen dentsitatea eta biomasa. 2021. urtea.

ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	Dentsitatea		Biomasa	
			(N/Ha)	Sailkapena	(kg/Ha)	Sailkapena
ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	<b>1.914</b>	Txikia	<b>47</b>	Txikia
PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	<b>3.260</b>	Ertaina	<b>57</b>	Txikia
KARRIKA	KAR06818	Karrika	<b>1.357</b>	Txikia	<b>35</b>	Txikia
MENDARAZ	URU17500	Urumea	<b>401</b>	Oso txikia	<b>3</b>	Oso txikia
PIKOAGA	URU30000	Urumea	<b>366</b>	Oso txikia	<b>11</b>	Oso txikia
LASTAOLA	URU35400	Urumea	<b>65</b>	Oso txikia	<b>1</b>	Oso txikia
URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	<b>2.011</b>	Ertaina	<b>34</b>	Txikia
OKILEGI	ANA03800	Añarbe	<b>1.270</b>	Txikia	<b>37</b>	Txikia
LATXE BOKALEA	LAT04451	Latxe	<b>2.093</b>	Ertaina	<b>78</b>	Ertaina-Txikia
ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	<b>2.365</b>	Ertaina	<b>73</b>	Ertaina-Txikia
LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	<b>1.804</b>	Txikia	<b>139</b>	Ertaina
LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	<b>796</b>	Txikia	<b>116</b>	Ertaina
ARAXES EXPER.	ARA13750	Araxes	<b>2.034</b>	Ertaina	<b>74</b>	Ertaina-Txikia
ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	<b>1.484</b>	Txikia	<b>45</b>	Txikia
AMERAUN	LEI23000	Leitzaran	<b>616</b>	Txikia	<b>47</b>	Txikia
APARRAIN	LEI24600	Leitzaran	<b>1.276</b>	Txikia	<b>37</b>	Txikia
LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzaran	<b>629</b>	Txikia	<b>41</b>	Txikia
AUSINEGI	LEI30800	Leitzaran	<b>2.096</b>	Ertaina	<b>32</b>	Txikia
TEILERIARTETIK GORA	URO06000	Urola	<b>4.879</b>	Handia	<b>81</b>	Txikia
MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	<b>4.527</b>	Handia	<b>86</b>	Txikia
URRESTILLA	IED07800	Ibai-Eder	<b>1.788</b>	Txikia	<b>146</b>	Ertaina-Handia
ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	<b>1.707</b>	Txikia	<b>40</b>	Txikia
ARANTZAZU BARRUTITIK G.	ARZ09700	Arantzazu	<b>1.805</b>	Txikia	<b>56</b>	Txikia
SALLOBENTE	SLO02600	Sallobente	<b>2.717</b>	Ertaina	<b>57</b>	Txikia


2021eko kanpaina honetan, **populazio-dentsitatea** gutxieneko 65 amuarrain/ha (Lastaola Urumea ibaian) eta gehienez 4.879 amuarrain/ha (Teileriartetik gora Urola ibaian) tartetan agertzen da. Teileriarte eta Matxinbenta estazioak dira dentsitate **handia** daukaten bakarrak (4.000 amuarrain/ha baino handiagoa), eta 7 estazioetan dentsitatea **ertaina** da: Penadegi, Urmenditik behera, Latxe Bokalea, Ataundik gora, Araxes Esperimentala, Ausinegi eta Sailobente (2.011 amuarrain/ha eta 3.260 amuarrain/ha artean).

Dentsitate **txikia**, 1.000-2.000 amuarrain/ha arteko tartean, 9 estazio daude guztira: Oiartzungo arroan 2 estazio (Altzibar eta Karrika), Urumea arroko bakarra (Okilegi), Oria ibaiaren arroko 3 estazio (Lizartzatik gora, Araxes Kontrola eta Aparrain), Urola arroko estazio 1 (Urrestilla) eta Deba arroko bi estazio (Arantzazu barrutia eta Arantzazu barrutitik gora).


Dentsitate **txikia**, aurrekoa baino baxuagoa 500-1000 amuarrain/Ha arteko tartean berriz, 3 estazio aurkitzen dira: Lizartzatik behera Araxes ibaian eta Ameraun, Lizarraundi Leitzararenen.

Azkenik, 3 estazioetan lortzen den dentsitatea **oso txikia** da, 500 amuarrain/ha bezala edo txikiagoa. Urumea ibaiko 3 estazioak dira, Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola.


**Biomasaren** kasuan, populazioa maila **ertaina eta ertain-handia** (116-146 kg/Ha artean) 3 estazio aurkitzen dira: Lizartzatik gora, Lizartzatik behera eta Urrestilla. Egoera **ertaina-txikia** (73-78 kg/Ha artean) 3 estazio kokatzen dira: Latxe bokalea, Ataundik gora eta Araxes Esperimentala. Estazioen gehiengoa, 13 guztira, biomasa egoera **txikia** hartzen dute 32 kg/Ha (Ausinegi) eta 57 kg/Ha (Penadegi eta Sailobente) artean. Gainontzeko 3 estazio, Urumea ibaian kokatzen direnak, biomasa **oso txikia** lortzen dute (Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola ).



4. Irudia Amuarrain-populazioaren dentsitatea eta (2.000 n/ha) erreferentzia-balioa. 2021. Urtea.



5. Irudia Amuarrain-populazioaren biomasa. 2021. urtea.



## 4.2. ARRAIN-POPULAZIOEN UGALKETA

Erreklutamendu-tasaren arabera (arrainkumeen portzentajea populazio orokorrarekin alderatuta) eta arrainkume dentsitatearekin, amuarrainen populazioak modu honetan sailkatu daitezke:

5. Taula Arrainkumeen erreklutamendu tasaren eta dentsitatearen sailkapen tartea.

Erreklutamendu-tasa	Sailkapena	Arrainkumeen dentsitatea (arraink./Ha)	Sailkapena
< 0,30	Txikia	< 1.000	Txikia
0,30 – 0,50	Ertaina	1.000 – 2.500	Ertaina
> 0,50	Handia	> 2.500	Handia

Kontutan hartu behar da erreklutamendu-tasak, kontraesankorrak diren emaitzak adierazi ditzakela. Honela, naiz eta erreklutamendu tasa handia izan, arrainkume dentsitatea txikia izan daiteke eta alderantziz. Modu honetan, 2021eko kanpainan lortutako emaitzak honakoak izan dira:

6. Taula Amuarrain-populazioaren erreklutamendu tasa. 2021. urtea


ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (Arraink./Ha)	SAILKAPENA	TASA	SAILKAPENA
ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	<b>1.351</b>	Ertaina	<b>0,71</b>	Handia
PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	<b>2.234</b>	Ertaina	<b>0,69</b>	Handia
KARRIKA	KAR06818	Karrika	<b>590</b>	Txikia	<b>0,44</b>	Ertaina
MENDARAZ	URU17500	Urumea	<b>394</b>	Txikia	<b>0,98</b>	Handia
PIKOAGA	URU30000	Urumea	<b>309</b>	Txikia	<b>0,84</b>	Handia
LASTAOLA	URU35400	Urumea	<b>57</b>	Txikia	<b>0,88</b>	Handia
URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	<b>1.613</b>	Ertaina	<b>0,80</b>	Handia
OKILEGI	ANA03800	Añarbe	<b>893</b>	Txikia	<b>0,70</b>	Handia
LATXE BOKALEA	LAT04451	Latxe	<b>868</b>	Txikia	<b>0,41</b>	Ertaina
ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	<b>1.591</b>	Ertaina	<b>0,67</b>	Handia
LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	<b>415</b>	Txikia	<b>0,23</b>	Txikia
LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	<b>105</b>	Txikia	<b>0,13</b>	Txikia
ARAXES EXPER.	ARA13750	Araxes	<b>1.305</b>	Ertaina	<b>0,64</b>	Handia
ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	<b>772</b>	Txikia	<b>0,52</b>	Handia
AMERAUN	LEI23000	Leitzarar	<b>285</b>	Txikia	<b>0,46</b>	Ertaina
APARRAIN	LEI24600	Leitzarar	<b>886</b>	Txikia	<b>0,69</b>	Handia
LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzarar	<b>183</b>	Txikia	<b>0,29</b>	Txikia
AUSINEGI	LEI30800	Leitzarar	<b>1.903</b>	Ertaina	<b>0,91</b>	Handia
TEILERIARTETIK GORA	URO06000	Urola	<b>3.883</b>	Handia	<b>0,80</b>	Handia
MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	<b>2.590</b>	Handia	<b>0,57</b>	Handia
URRESTILLA	IED07800	Ibai-Eder	<b>226</b>	Txikia	<b>0,13</b>	Txikia
ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	<b>1.262</b>	Ertaina	<b>0,74</b>	Handia
ARANTZAZU BARRUTITIK G.	ARZ09700	Arantzazu	<b>993</b>	Txikia	<b>0,55</b>	Handia
SALLOBENTE	SLO02600	Sallobente	<b>2.095</b>	Ertaina	<b>0,77</b>	Handia




Orokorrean estazio gehienetan erreklutamendua zuhurra da. **Arrainkume dentsitatea handia** da, soilik, Teileriarretetik gora (3.883 arraink./Ha) eta Matxinbenta (2.590 arraink./Ha) estazioetan, balio **ertaina** (1.000-2.500 arraink./Ha artean) kokatzen diren estazioak 8 dira: Altzibar eta Penadegi Oiartzun arroan, Urmenditik behera Urruzuno ibaian (Urumea arroa), Ataundik gora Agauntza ibaian, araxes esperimentala eta Ausinegi Araxes eta Leitzarain ibaian (Oria arroa), Arantzazu barrutia eta Sailobente, Arantzazu eta Sailobente ibaietan (Deba arroa).

Gainerako 14 estazioetan arrainkume dentsitatea **Txikia** da, nahiz eta hau bi multzo handitan erdibitzen den: lehendabiziko multzoan 6 estazio kokatzen dira, 500-1.000 arraink./Ha artean (Karrika Oiartzun arroan, Okilegi eta Latxe bokalea Urumea arroan, Araxes kontrola eta Aparrain Oriaren eta Arantzazu barrutitik gora Deba arroan) eta bigarren multzoan, 500 arraink./Ha-ko edo baxuagoko dentsitatearekin 8 estazio kokatzen dira (Mendaraz, Pikoaga eta Lastaola Urumea arroan, Lizartzatik gora, Lizartzatik behera, Ameraun eta Lizarraundi Oriaren eta Urrestilla Urola arroan).

Estazio gehienetan erreklutamendu tasaren sailkapena balio handi eta ertainean agertzen da, baita arrainkume dentsitatea txikia denean ere; horrek esan nahi du kasu horietan gainerako adin-taldeen (gazteak eta helduak) dentsitatea ere txikia dela.



6. Irudia Arrainkume-populazioen dentsitatea eta (1.000 kume/ha) erreferentzia-balioa. 2021. urtea.



#### 4.3. AMUARRAIN GAZTE ETA HELDUEN DENTSITATEA

Arrain gazteen dentsitate tartea honela sailkatzen da:

7. Taula Arrain gazteen sailkapen tartea, dentsitatearen arabera.


Gazteen dentsitatea (gazte/Ha)	Sailkapena
< 600	Txikia
600 – 1.200	Ertaina
> 1.200	Handia

8. Taula Amuarrain gazteen dentsitatea. 2021. urtea.

ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (gazte/Ha)	SAILKAPENA
ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	<b>473</b>	Txikia
PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	<b>585</b>	Txikia
KARRIKA	KAR06818	Karrika	<b>472</b>	Txikia
MENDARAZ	URU17500	Urumea	<b>7</b>	Txikia
PIKOAGA	URU30000	Urumea	<b>11</b>	Txikia
LASTAOLA	URU35400	Urumea	<b>8</b>	Txikia
URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	<b>228</b>	Txikia
OKILEGI	ANA03800	Añarbe	<b>190</b>	Txikia
LATXE BOKALEA	LAT04451	Latxe	<b>542</b>	Txikia
ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	<b>385</b>	Txikia
LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	<b>594</b>	Txikia
LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	<b>317</b>	Txikia
ARAXES EXPER.	ARA13750	Araxes	<b>405</b>	Txikia
ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	<b>530</b>	Txikia
AMERAUN	LEI23000	Leitzaran	<b>218</b>	Txikia
APARRAIN	LEI24600	Leitzaran	<b>307</b>	Txikia
LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzaran	<b>289</b>	Txikia
AUSINEGI	LEI30800	Leitzaran	<b>167</b>	Txikia
TEILERIARTETIK GORA	URO06000	Urola	<b>751</b>	Ertaina
MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	<b>1.633</b>	Handia
URRESTILLA	IED07800	Ibai-Eder	<b>1.131</b>	Ertaina
ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	<b>248</b>	Txikia
ARANTZAZU BARRUTITIK G.	ARZ09700	Arantzazu	<b>558</b>	Txikia
SALLOBENTE	SLO02600	Sallobente	<b>402</b>	Txikia

Estazio gehienetan gazte oparotasuna urria da. **Gazteen dentsitatea handia** lortzen duen estazio bakarra Matxinbenta estazioa da (Ibai-Eder Ibaia) (1.633 gazte/Ha). **Gazteen dentsitatea ertaina** da Teileriartetik gora Urola ibaian (751 gazte/Ha) eta Urrestilla (1.131 gazte/Ha) ibai-Eder ibaian, Urolan. Gainontzeko 21 estazioetan berriz, gazte dentsitatea maila **txikian** kokatzen da.

Maila txikian kokatzen diren estazio hauetatik 12, 300-600 gazte/Ha dentsitate artean kokatzen dira: Altzibar, Penadegi eta Karrika Oiartzun arroan; Latxe bokalea Urumeako arroan; Ataundik gora, Lizartzatik gora, Lizartzatik behera, Araxes Esperimentala eta Araxes Kontrola, Oria arroan eta Arantzazu barrutitik gora eta Sailobente Deba arroan. Gainerako 9 estazio 300 gazte/Ha baino baxuagoko dentsitateak lortzen dituzte.



7. Irudia Amuarrain gazte-populazioen dentsitatea eta (600 gazte/ha) erreferentziala. 2021. urtea.

Helduei dagokienez, dentsitatea honela sailkatzen da:

9. Taula Arrain helduen sailkapen tartea, dentsitatearen arabera.


Helduen dentsitatea (heldu./Ha)	Sailkapena
< 200	Txikia
200 – 400	Ertaina
> 400	Handia

10. Taula Amuarrain helduen dentsitatea. 2021. urtea.


ESTAZIOA	KODEA	IBAIA	DENTSITATEA (heldu/Ha)	SAILKAPENA
ALTZIBAR	OIA08000	Oiartzun	90	Txikia
PENADEGI	OIA03500	Oiartzun	442	Handia
KARRIKA	KAR06818	Karrika	294	Ertaina
MENDARAZ	URU17500	Urumea	0	Txikia
PIKOAGA	URU30000	Urumea	46	Txikia
LASTAOLA	URU35400	Urumea	0	Txikia
URMENDITIK BEHERA	URR06000	Urruzuno	170	Txikia
OKILEGI	ANA03800	Añarbe	188	Txikia
LATXE BOKALEA	LAT04451	Latxe	683	Handia
ATAUNDIK GORA	AGA11000	Agauntza	389	Ertaina
LIZARTZATIK GORA	ARA15800	Araxes	794	Handia
LIZARTZATIK BEHERA	ARA20000	Araxes	374	Ertaina
ARAXES EXPER.	ARA13750	Araxes	324	Ertaina
ARAXES KONTROLA	ARA15150	Araxes	182	Txikia
AMERAUN	LEI23000	Leitzaran	113	Txikia
APARRAIN	LEI24600	Leitzaran	83	Txikia
LIZARRAUNDI	LEI28100	Leitzaran	157	Txikia
AUSINEGI	LEI30800	Leitzaran	26	Txikia
TEILERIARTETIK GORA	URO06000	Urola	245	Ertaina
MATXINBENTA	IED01800	Ibai-Eder	304	Ertaina
URRESTILLA	IED07800	Ibai-Eder	430	Handia
ARANTZAZU BARRUTIA	ARZ11300	Arantzazu	198	Txikia
ARANTZAZU BARRUTITIK G.	ARZ09700	Arantzazu	254	Ertaina
SALLOBENTE	SLO02600	Sallobente	219	Ertaina


**Amuarrain helduen dentsitateak** saiklapen **handia** lortzen du 4 estazioetan, Penadegi (442 heldu/Ha), Latxe Bokalea Latxe ibaian (683 heldu/Ha), Lizartzatik gora (794 heldu/Ha) Araxes ibaian eta Ibai-Eder ibaian Urrestilla estazioa (430 heldu/Ha). 8 estazio, **heldu** dentsitate maila **ertainean** kokatzen dira (200-400 heldu/Ha artean): Karrika Oiartzun arroan, Ataundik gora, Lizartzatik behera eta araxes Esperimentala Oria arroan, Teileriarretetik gora eta Matxinbenta Urola arroan eta Arantzazu barrutitik gora eta Sailobente estazioak Deba arroan.

Heldurik harrapatzen ez den Mendaraz y Lastaola estazioak kenduta, gainontzeko 10 estazioek dentsitate maila **txikia** lortzen dute. Balio baxuak nabarmentzen dira, 100 heldu/Ha iristen ez direnak, hala nola, Altzibarren, Oiartzun ibaia, Pikoaga Urumean eta Aparrain eta Ausinegi Leitzararenen.



8. Irudia Amuarrain helduen populazio dentsitatea eta (200 heldu/ha) erreferentzia-balioa. 2021. urtea







## 5. AMUARRAIN POPULAZIOEN DENBORA BILAKAERA

### 5.1. GIPUZKOAKO ESTAZIO GUZTIEN DENBORA BILAKAERA

1994. urteaz geroztik, arrantza elektrikoaren bitartez amuarrain-populazioen jarraipen bat egin da laginketa-sarearen 13 puntutan. Estazio hauetatik urteroko amuarrain populazioaren batz-besteko dentsitateak lortzen dira, halaber, **arrainkume**, **gazte** eta **helduen** sailkapenak lortzen dira. Aurtengo urte honekin, 1994-2021 urte arteko datuen segida gauzatzen da. Ondorengo taulan, gogoan edukitze aldera, amuarrain-populazioaren sailkapenerako dentsitate tarteak sartzen dira:

11. Taula Amuarrain-populazioen sailkapen-tartea dentsitatearen arabera.

Sailkapena	Populazioaren dentsitatea (amuarrain/Ha)	Arrainkumeen dentsitatea (arraink./Ha)	Gazteen dentsitatea (gazte/Ha)	Helduen dentsitatea (heldu/Ha)
<b>Oso handia</b>	> 6.000			
<b>Handia</b>	4.000 – 6.000	> 2.500	> 1.200	> 400
<b>Ertaina</b>	2.000 – 4.000	1.000 – 2.500	600 – 1.200	200 – 400
<b>Txikia</b>	500 – 2.000	< 1.000	< 600	< 200
<b>Oso txikia</b>	< 500			

2021ean, 13 estazioen **Populazio dentsitatearen batz-bestekoa** orokorrean **1.859 amuarrain/Ha**-koa izan da, honek dentsitate maila **txikia** adierazten du, hala ere, dentsitate tarte ertainaren mugatik gertu. Datu hau, azken 9 urteetan erregistratutako batz besteko dentsitate handiena da, 2013-2021 urte artekoa eta urtez urteko batz bestekoaren antzekoa, **1.708 amuarrain/Ha** (12. taula; 8. irudia). Hala ere, nabarmentzekoa da 2020ko kanpainan estimatutako batez bestekoak ez dituela hartzen Urumea ibaiko dentsitate oso baxuko bi estazio, (Lastaola eta Pikoaga). Beraz, 2020ko batez besteko populazio-dentsitatea gainerako kanpainen gainetik balioetsia zegoen.

Denbora bilakaerari dagokionez, segida historikoan zehar beheranzko joera ikus daiteke eta hiru denboraldi nabarmenak dira. Lehendabizikoa, 1994 eta 2007 urte artekoa da, dentsitatea 3.021 amuarrain/Ha maila altu batetik, 2007 urtean 770 amuarrain/Ha serie osoko maila baxuena hartzera jaisten da. Bigarren denboraldia, 2008-2013 urte artekoa dela esan daiteke, 1.923 amuarrain/Ha batezbestekoarekin eta bi dentsitate maila alturekin (2010 eta 2012) 2.808 y 2.961 amuarrain/Ha. Hirugarren denboraldian, 2014-2021 aldian, 4 urteko fase egonkorra ikusten da (2014-2017) non populazioaren dentsitatea 1.000 amuarrain/Ha ingurukoa da, azken 4 urteetan aldiz, (2015-2021) dentsitatearen mailaz mailako indartze bat gertatzen da, 2021ean ia 2.000 amuarrain/Ha izatera iritsi arte.

Urte batetik bestera gertatzen diren amuarrain dentsitatearen gora-beheranzko aldaketa handiak, arrainkumeeekin lotuta daude, hau da, espezieak ernalkuntzan arrakasta izan duen ala ez. Honela, urte batean ernalkuntzak arrakasta izaten badu, hau populazioaren dentsitate osoaren goranzkoan

atzematen da, modu berean ernalkuntza txar bat gertatu ezker normalean, populazio dentsitatearen beherakada gertatzen da. Ondorioz, arrainkumeen eboluzioa populazio osoaren antzekoa da, goranzko eta beheranzko gogorrek ernalkuntza ona edo txarrarekin zerikusi zuzena daukate.

2021. urtean, Arrainkume **dentsitatearen batz-bestekoa 1.227 arrainkume/Ha**-koa izan da, hau dentsitate ertainarekin lotuta dago. Balio hau 2020. urtean lortutakoaren antzekoa da (**1.218 arrainkume/Ha**) eta segida osoko batz-bestekoa baino handiagoa ere bada (1.016 arraink./Ha). Segidak beheranzko nolabaiteko joera erakusten du, bertan lehen aipatutako hiru garai nabarmentzen dira populazio osoaren dentsitatearekiko. Lehendabizikoa, 1994-2007 urte artekoa da, arrainkumeen dentsitatea 1.626 arraink./Ha edukitzetik 273 arraink./Ha 2007. urtean edukitzera pasatzen da, hau segida osoko bigarren datu okerrera da. Bigarren garaia, 2008-2012 urte artean kokatzen da, 1.283 arraink./Ha-ko maila ertainarekin populazioak indartu egiten dira, gainera bi gorakada handi jasaten ditu, 1.956 arraink./Ha 2010. urtean eta 2.253 arraink./Ha 2012 urtean. Hirugarren aldi batean, erreklutamendua pixkanaka hobetu den arren, arrainkumeen batez besteko dentsitatea txikia da, 712 arraink./Ha batez besteko balioarekin eta bi erregistro maximoekin, 1.200 arraink./Ha ingurukoak azken bi urteetan. Beraz, azken 8 urteetan ez da ikusten lehen ohikoa zen “zerraren hortza” deituriko eredu arrainkumeen populazioan, bertan, urte onak eta txarrak txandakatzen ziren.

